


TXIKITTO

2011-01 • 117. zenbakia



...eta kitto!

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri, Koldo Mitxelena
eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Maider Aranberri eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa,
Maider Aranberri eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96


Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Urte Berri on **Urkiko** eskolatik! Hemen gaituzue berriro. Hasi orduko "Kontsumo tailerrak" izan ditugu. 1. zikloak "Jolas eta jostailuak" eta "Ontziak eta berrerabilera" landu du. 2. ziklokoek "Elikagaien elabrazioa eta etiketak", eta 3. ziklokoek, berriro, "Energia" eta "Elikagaien arteko analisi konparatiboak". Gurasoentzako hitzaldia ere izan dugu honekin lotuta: "Kontsumoa eskoletan esperientziari buruzko informazio hitzaldia".

3. zikloko ikasleak liburutegian izan dira Irudiz-irudi programan, "Maketazio tailerra" lantzen. Zinera joateko aukera ere izan dute 1. ziklokoek, Zinema Euskaraz programan "Pepper" filma ikusteko.

Jadanik burua hurrengo lanak prestatzen ere badaukagu, laster baitatoz Sanblasak, Santa Ageda, Ate Irekiak... Azken hau otsailaren 5ean ospatuko dugu; beraz, gurekin jai hau ospatu eta eskola ezagutu nahi duzuenok gonbidatuta zaudete: hemen izango gaituzue!

Urkizu eskolako 2. mailako ikasleek igeriketa kanpaina izan dute Ipuruako kiroldegian urtarrilaren 10etik 21era. Bestetik, urtarrilaren 26an, 1go eta 2. mailako ikasleak Coliseora joan ziren, "Pepper" filma ikustera.

5. eta 6. mailakoak, bestalde, Arotz Enea barnetegira joan ziren urtarrilak 19, 20 eta 21ean.



Urte Berri on **La Salle** ikastetxetik. Oporrak, gure moduan, ondo pasatu dituzuelakoan gaude. Urtarrilean Pakearen Astea ospatu dugu, astean zehar ekintza ezberdinak landuz geletan. 6. mailakoak Mutrikun egon ziren arrantza mundua ezagutzen eta, nahiz eta saiatu, oraindik ez dituzte arrainak sareetan aurkitzen! 3. mailakoak nekazal mundua ere ezagutzeko aukera izan zuten Bergara eta Antzuola aldera joanda; bertan, animaliak nola zaindu, nekazal tresneria etb. ikusteko parada izan zuten.

Isasi mendi taldekoak, animoso gainera, Karakatera igoera egin zuten urte berriko indarrak gastatzen hasita.





DENBORAPASAK

AURKITU SOPA-LETRAN 8 ANIMALI

O	L	A	B	E	H	I	A	A	S	U
E	S	D	S	Z	B	G	U	T	A	B
U	B	A	O	R	A	D	B	O	K	E
L	G	I	G	I	E	L	T	A	A	L
R	B	E	H	U	A	S	D	O	T	O
T	X	O	R	I	A	T	E	I	U	O
B	E	Z	A	O	D	S	X	L	A	A
B	S	R	G	S	I	O	A	E	R	E
L	D	T	X	O	R	A	B	S	Z	E
E	K	A	T	U	I	L	U	E	T	L
Z	R	A	I	R	R	E	X	T	E	O

- SAGUA
- BEHIA
- ASTOA
- ZALDIA
- TXAKURRA
- KATUA
- TXORIA
- TXERRIA

EGILEA: Olatz Mandacila G.A


5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera

1	2	3	4	5
6				
7				
8				
9				

1. Apaiz.
2. Ekaina.
3. Nabari
4. Dira, bizkaieraz.
5. Eraikin erlijiosoa.

Lur



- 1=beltza
- 2=horia
- 3=berdea
- 4=urdina

Naria Ferrer

Bilatu emaitza egokia denak txarto daudelako, baina kontuz denak ez daude gaizki:

Gero ipini ondo letrak ADI 0a da ondo dagoena:

$9 \times 9 = 45$

23

errboeig

$5 \times 7 = 13$

35

btaolragie

$4 \times 7 = 65$

40

errboeig

$5 \times 8 = 23$

81

ozre

$23 \times 1 = 90$

28

heigoathbsama

$9 \times 8 = 72$

0


ohgieatozrtiz

$90 - 50 = 60$

40

ogeigatuhr

Lorena
Ostiategui



Zelakoa zara?

Nora

Ume bat negarrez eta...

- Zer gertatzen zaizu, seme?
- Eskolan andereñoak jo egin nau.
- Andereñok jo zaituela? Eta zergatik?
- Brasil non dagoen galdetu dit eta ez nekien.

Hori entzun bezain laster aitak zaplastekoa ematen dio, esanez:

- Hurrengoan gorde hobeto gauzak.

Cindy Castro



- Ama, ama, ikastolako mutilek txikle bat eman didate zuhaitz batera igotzearen truke.
- Baina ez al zara konturatzen hori kuleroak ikusteko egiten dutela?
- Bai, badakit, baina ni azkarragoa naiz eta kuleroak kendu ditut.

Aitzol Oyarzabal



Komentu batean lapur bat sartu da eta lapurreta egin du. Mojaburuak:

- Gure artean gizon bat dago eta nor den jakiteko gonak altxatu eta bakoitzak bere izena esan beharko du.

Lehenengoak:

- Sor Matilde!
- Sor Maria! -besteak.
- Sor Luzia! -hurrengoak.

Baina azkenaren txanda iristen denean, honek:

- Sor... presaaaa!!

Malen Txurruka

Gizon bat medikuarengana doa eta esaten dio:

- Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puzkarrek ez dute usainik.
- Hori ezin da izan. Ea, bota bat.
- Prrrrrr!!
- Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.
- Ipurdian?
- Ez, ez, sudurrean.

Irene Rodriguez

Behin batean, maisuak galdetu zion Jaimitori:

- Zer da kanibal bat?
- Ez dakit -erantzun zion Jaimitok.

Maisuak, errazteko asmoz, galdetu zion:

- Zure gurasoak jaten badituzu, zer zara zu?
- Bada, umezurtza.

Lorena Etxaluze



Gizon bat farmazia batera sartu eta galdetu du:

- Ba al duzue azido azetil salizilikoa?
- Aspirina esan nahi duzu?
- A!! Kontxo, izena ahaztuta neukan.

Ane Arranz

Pepito bere etxera doa eta esaten dio amari:

- Ama, hemen dituzu nire notak.
- Zeeerr?? Nota hauek zaplasteko bat merezi dute!
- Egia da, ama, goazen, nik badakit-eta andereñoa non bizi den.

Paula Blas



Maisuak Jaimitori:

- Ia, Jaimito, zeintzuk dira ikasleek gehien erabiltzen dituzten bi hitzak?
- Ez dakit.
- Oso ondo, Jaimito. Ondo egin duzu.

Ainhoa Beorlegi

- Amaaaa, amaaa, eskolan "asteburu" deitzen didate!
- Zaude isilik, Domingo.

Leire Ayala

- Aita, aita! Handia naizenean zu bezalako izan nahi dut.
- Ni bezain inportantea?
- Ez, ni bezalako seme bat izateko.

Malen Vicente

- Jaimito, zenbat da 2 bider 2?
- Berdina.
- Eta zenbat da 2 bider 1?
- Eskaintza.

Iker Aldalur



“Zigortzaileak”,

bullyng-aren kontrako super heroiak

U rte berriarekin batera ailegatu da zinemetara “Zigortzaileak” pelikula, bullyng-aren gaia jorrazten duen pelikula. Portugaleten errodatutako euskarazko filman hamaika umek dihardute, izen handiko aktoreekin batera. Marrazki bizidunezkoa ez den eta hemen egindako umeentzako lehenengo pelikula da.

“Zigortzaileak” umei zuzendutako abenturazko filma da. Euskaraz egina, umeak protagonistak direla Euskal Herrian egin den lehenengo pelikula da. Film honek hainbat ikasleren abenturak kontatzen ditu: eskola bateko hiru ganberro menderatzaileraren jazarpena pairatzen duen neskatxa baten (Ainara) arazoekin hasten da filma. Egoera jasan ezinik, Ainarak eskolaz aldatzea pentsatzen du eta bere laguna den Leirek,

nekearen nekeaz, menderatzaileei aurre egitea erabakitzen du. Horretarako Zigortzaileak deituko den superheroi taldea osatuko du, Sandra eta Leo lagunekin batera. Talde honek eskarmentua eman nahi izango die Anjel eta bere hiru lagun menderatzaileei. Bullyng-aren gaia arantzatsua bada ere, Zigortzaileen moztarreak, egindako zenbait hutsegitek eta gaztetxoek duten imajinario handiak pelikula umorez zipriztinduko dute. Film honetan argi ikusten da nola bat eginda askoz hobeto egiten zaien aurre arazoei.

Casting jendetsua

Nork ez du inoiz buruan izan pelikula batean parte hartzeko desioa? Eszenatoki zoragarriak, erropa des-





berdinak, besteren baten paperean jardutea, umorea eragitea, edo negarra... Ba hori pentsatuko zuten, ziur asko, "Zigortzaileak" pelikulan parte hartzeko antolatuta zuten proba edo casting-ean parte hartu zuten ehundaka gaztetxok. Filmeko paper nagusiak zineman debuta egiten duen neska eta mutil gazte talde batek betetzen ditu. Hain zuzen ere, Bizkaiko leku askotan zein Ipar Euskal Herrian casting prozesu zurrunbilotsua egin zen horretarako, eta probetara 1.200dik gora ume aurkeztu zen. Umeen paper horiek betetzen dituztenak Amaia Aberasturi, Nikola Zalduegi, Andoni Delavigne, Estibaliz Sarasola, Martin Gandiaga, Pello Madariaga eta Asier Vegas dira. Horiekin batera dihardute izen handiko hainbat aktore ere: Anne Igartururu, Carlos Sobera, Loli Astoreka, Gurutze Beitia, Alfonso Torregrosa eta Rafael Amargo dantzaria.

Errodajea

2009. urteko udan filmatu zen pelikula. Portugalera Zuzunegi Institutuan egin zen sekuentzia gehienek filmaketa, eta Santurtzin, Getxon eta Berangon beste guztiena. EITBren parte-hartzea eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere izan du "Zigortzaileak" pelikulak.

Guzti honen ondoren telebistarako serie bat egiteko aukera ez dute baztertu pelikularen ardura-dunek, eta badaezpada amaiera nahiko irekia laga dute. Dena dela, zinema aretoetan duen harreraren arabera erabakia izango dela ere azpimarratu dute egileek.

Hor duzue, bada, ondo pasatu eta gai garrantzitsu baten inguruan pentsatzeko aukera ezinhoa, Euskal Herriko zineetan.

HIRU MOZORRO ERRAZ

la-ia konturatu barik aratosteak gainera etorriko zaizkigu, eta zein mozorro aukeratzea zaila egiten bazaizue, hona hemen hiru aukera erraz-errazak. Gauza gutxirekin mozorro politak egin ditzakezue.



1

MAHATS MOZORROA

MATERIALA:

*Globo moreak edo berdeak.
Leggins beltza eta
kamiseta more edo berdea.
Puztu globoak eta josi
itzazu kamisetara.*




2

TXIMELETA MOZORROA

MATERIALA:

*Oihal zati bi.
Pintura akriliko beltza,
laranja eta horia.
Praka beltza eta
kamiseta laranja.
Moztu oihala tximeletaren
hegoaren formarekin
eta margotu bi aldeetatik.
Josi hegoak kamisetara
eta besoak irekitzerakoan
hegoak agertuko dira.*



3

ROBOT MOZORROA

MATERIALA:

*Kartoizko kaxa bat.
Aldizkari-papera.
Aluminiozko papera.
Kaskoa egiteko forratu
aluminiozko paperarekin
katilu edo bol bat.
Kartoizko kaxarekin,
itsasgarriarekin eta
aldizkari-paperekin
gauza elektrikoen
iturazko diseinua egin
eta zuloak egin burua
eta besoak ateratzeko.
Mahukak edo mangak
egiteko egin biribilkiak
aluminiozko paperarekin.
Eskularru gorriak ere
erabili daitezke.*



MAHATSA



TXIMELETA



ROBOTA



SORGINA ETA USOA

Bazen behin familia zoriontsu bat:senar-emazteak eta ume jaio berria. Auzoko guztiek miresten zuten familia hura: "Ah ze bikote ederra, eta semea zer esanik ez!".

Behin batean emaztea zuhaitz baten itzalpean zegoen hartxo magalean hartuta. Atso itsusi bat hurbildu eta...

"Kaixo politori. Ilea orrazten utziko didazu?"

"Ez, eskerrik asko, ez daukat orrazteko premiarik"

"Nik uste komeni zaizula. Utzidazu, utzidazu!"

"Tira, komenigarria baderitzozu... orraztu ba"

Eta orrazten hasi zen. Baina atso temati hura sorgina zen, sorgin maltzurra, eta orratz beltz bat sartu zion buruan. Orratza sartu eta emakumea uso bihurtu zen. Usoa, bai: hegoak zabaldu eta, pla-pla-pla. Alde egin zuen! Atsoak, berehala, emakumearen tokia hartu zuen: zuhaitzaren itzalean eseri zen haurtxoa magalean jarrita.

Auzokoak, haurra atso ezezagun itsusi haren eskuetan ikusita, harritu egin ziren:

"Aizu, nor zara zu?"

Eta sorginak gezurra.

"Ume honen ama! Nor izango naiz ba! Itxuraldatuta nago, bai, lehen emakume ederra nintzen, baina sorgin gaizto batek itxura hau eman zidan"

Hasieran inork ez zion sinetsi, baina hainbestetan esaten zuenez gauza bera, azkenerako denek ziria irentsi. Baita senarrak ere. Sorginak emakumea ordezkatzeko eta etxe zoriontsu hartan sartzea lortu zuen.

Etxeak lorategi polit bat zeukan eta egun hartatik aurrera egunero uso zuri bat hurbiltzen zen bertara. Senarrari uso hura asko gustatu eta harrapatzen saiatzen zen. Sorginak, berriz:

"Zertarako nahi duzu uso nazkagarri hori! Ala! Goazen barrura!"

Baina behin, zorionez, senarrak usoa harrapatu zuen. Gizonak burua laztandu zionean, arraroa zen zerbait aurkitu zion. Horixe arraroa! Orratz beltza zeukan buruan sartuta. Gizonak orratza atera eta usoa emakume eder bihurtu zen! Bere emaztea zen!

Emakumeak gertatutakoaren berri eman zuenean, herritarrek sorgina atxilotu zuten. Enparantzan epaitu eta herritik bota egin zuten.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



OSAGAIAK:

- Patatak (1/2 kg)
- 8 arrautz
- Tipula handi bat
- Gatza
- Tomate frijitua (4 goilarakada)
- Urtzen den gazta
- York urdaiazpikoa, atuna, ganba, antxoak, txanpiñoiak, olibak...



Ziur asko, zuetako askori gustatuko zaizue bai patata-tortila eta baita pizza ere. Ba errezeta honen bitartez, bi gauzak nahasturik, jaki gozo-gozoa egingo duzue.

PAUSOAK:


- 1.- Patata-tortila normalean egiten dugun moduan egin. Patata eta arrautzari gehitu txip patatak, tortila goxoagoa gelditu dadin.
- 2.- Nahastu dena ondo eta pasatu irabiagailutik, masa bat lortu arte. Zartaginean egin tortila txiki batzuk.
- 3.- Labea aurrez berotu 200 gradutan hamar minutuz gutxienez.
- 4.- Behin tortilak egin eta gero, tomate frijitua bota gainera, gero urtzeko gaztaia eta ondoren, nahi ditugun osagaiak.
- 5.- Labean sartu eta aukera ematen badu, grill eran jarri. Labean 5 minutuz eduki, gaztaia gainontzeko osagaiekin nahasteko adina denbora, tortila barretatik larregi sikatu ez dadin.



Pizzotortila

"caprichi"

INTERNETEN...



www.aquariumss.com

Web orri honetan itsasoa, bertan bizi diren animaliak, itsasogintza... eta abar ezagutu ahal izango dituzue. Bertara joatea erabakitzen baduzue, **informazioa** atalean argibide guztiak topatuko dituzue; nola iritsi, ordutegiak, tarifak... Gainera, eskolako lagunekin joanez gero, **hezkuntza** ipintzen duen atalean klik eginez gero, abantaila mordoa daudela ikusiko duzue. Baina joaterik ez baduzu edota lehenengo zer topatuko duzuen jakitea nahi baduzu, onena **bisita birtuala** dioen lekua klikatzea da, aldeaz aurretik zer dagoen ikusteko modurik onena.

Beste sekretutxo bat ere badu web orri honek. Izan ere, pantailaren behealdean **bisita temperaturak** dioten atalak topatuko dituzue. Bertan, momentuko itsasoaren egoeraren berri jasoko duzue; uraren temperatura, olatuen altuera... Aukera ezinhobea da, gure itsasoa ezagutzeko!

www.kutxaespacio.es

Matematikak, astronomia, fisika... izen arraro eta aspergarriak direla uste duzu? Ba bisita ezazu Miramongo Teknologi Parkean dagoen museo hau eta ziur iritzi aldaturiko duzula. Web orrian, bertara nola heldu, ordutegiak, tarifak... eta abar topatu ahal izango dituzue. Baina, joan aurretik, zer ikusteko aukera dagoen jakitea nahiago baduzue, **Museoko Guneak** dioen atalean klik egiten baduzue, bertan ikusgai dagoen guztia ezagutu ahal izango duzue; behatoki astronomikoa eta planetariuma (izarrak eta planetak ondo baino hobeto ezagutzeko), energia eta natura hobeto ulertzeko aukerak, simulagailuak... Bisita birtuala egiteko aukera ere badago, horrela bertara joan barik bisita txiki bat egin ahal izango duzue. Zientzia eta teknologia ikutu eta gozatzeko gaiak direla konturatuko zarete!



ARIES

Aries maitea, zer duzu, baina, buru horretan? Erdi tontotuta zabilta, burua beste nonbaiten duzu eta ez diozu inori jaramonik egiten. Maiteminduta ote zaude? Hori ematen du behintzat.

TAURUS

Erlojuari begiratzen al diozu? Ezetz ematen du, beti berandu iristen zarela leku guztietara. Zuri ez litzaizuke itxaroten egotea gustatuko, ezta? Ba pentsatu gehiago besteengan.

GEMINIS

Poz-pozik dituzu etxeokak. Zure portaera ezinhobea da eta horrela jarraitu beharko zenuke, barrabaskeria askorik egin gabe. Horrek fruitua ekarriko du-eta.

CANCER

Ondo pentsatuz gero, jakingo duzu arrazoia zurea dela eta lagun hori oker dagoela. Hala ere, lasai, bera ere konturatuko da denborarekin.

LEO

Den-dena ezin duzu lortu. Ez al zaude konforme daukazun guztiarekin? Gehiago baloratu beharko zenuke daukazuna, ez da gutxi-eta.

VIRGO

Kirolari fina eginda zaude. Kalean ere beti korrika. Pentsatu al duzu etorkizunean Joko Olinpikoetan parte hartzea? Ez zenuke gaizki egingo.

LIBRA

Batzuetan aspergarriak badira ere, nagusiek kontatzen dizkizuten istorioak balagarriak izan daitezke etorkizunerako. Asko ikasi dezakezu.

SCORPIUS

Kurtsoa hasi zenuela hilabete batzuk pasa dira, eta konturatzerako hemen daude Aste Santuko oporrak! Animo, hilabete batzuk besterik ez dira-eta. Gainera, ezustekoa jasoko duzu opor horietan!

SAGITARIUS

Erraz kikiltzen diren horietakoa zara, baina zure ausardia erakutsiko duzu laster, eta besteak harrিতuta utziko dituzu. Heroi baten antzera sentituko zara. Baina oinak beti lurrean, entzun?

CAPRICORNIUS

Datozen egunotan ezingo duzu geldirik egon eta dantzatzeko gogoia izango duzu: arin-arina, funky-a, rap-a, tangoa... berdin zaizu zer, gorputza mugitzea izango da kontua. Ba ez zaitez moztu!

ACUARIUS

Otsaila hilabete polita izango da Acuaris-entzat. 6 zenbakiak zortea ekarriko dizue, baita kolore urdinak ere, eta ligatzeko aukera izango duzu. Hala ere, kontuz etxeok-lanekin, ez zaitez erlaxatu.

PISCIS

Besteak iritzi ezberdina badauka ere, errespetua da garrantzitsua. Uleru behar duzu denok ez dugula berdin pentsatzen. Eta gogoratu, altuago berba egiteak ez duela arrazoia ematen.

ZURE IRITZIA... nire iritzia!

Nagusien eta umeen artean desberdintasun handiak izaten direla pentsatzen dugu, baina zer gertatuko litzateke galdera berdina egiten badiegu nagusiari eta haurrari? Horrenbesteko aldea egongo ote da?

Egitten al dozu Sanblasik? Zer moduz urtetzen jatzuz?

Maria Teresa Carmona 81 urte

Urte asko daroiat sanblas opillak egiten. Kanpotik etorri nintzanetik, izango dira 55 bat urte. Egixa esan oso onak urtetzen jataz, etxeak behintzat pozarren hartzen dittue. Alabakin batera egiten ditud, eta illobak be inguruan ibiltzen dira, laguntzen.

Naroa Martin 7 urte

Egitten ditud, bai. Amamak erakutsi zestan sanblas opillak egiten. Eta eskolan be egin ditudugu, eta oso ondo pasau dogu egiten. Gehixago gustatzen jata jatia egittia baiño. Nere amamak oso gozuak egiten ditud, baiña nere amatxonak ez dira hain onak.


Lisbeth Fuentes 35 urte

Egixa esan ez dakit egiten. Oin dala urtebete sukaldaritza ikastaro bat egin neban eta beste gauza batzuen artian sanblasak egiten erakutsi zeskuen, baiña egixa esan ez dot iñoiz praktikara eruan. Erosi egiten ditud.

Salma Losada 7 urte

Badakitt egiten; eskolan be egin ditudugu eta masia ondo urten bajakun be, etxeko labian amari pixkatxo bat erre egin jakon. Gogorra geldittu zan eta hagin bat be jausi egin jatan! Neri gehixago gustatzen jata sanblasak egittia jatia baiño.





Ariketa fisikoa.- 6 urtetik aurrera

Munstroa eta Igela lagun handiak dira. Igelak uste du gauza guztietan aditua dela, eta Munstroa kankailu gizajo bat da. Biek ala biek bizitzako zailtasunei aurre egiten diete irudimenez eta ausardiaz. Oraingo honetan, Igelak uste du Munstroa polotoa dagoela eta ariketak egiteko aholkatzen dio. Munstroa saiatzen da, baina gaizki egiten du. Baina zerbait Igelak baino hobeto egiten du!



Medellingo lokatza (Espainiako sari nazionala, 2009).- 10 urtetik aurrera

Camilok eta Andresek egunak kalez kale gora eta behera ibiliz ematen dituzte Medellingo beren auzoan, hau da, munduko lekurik onenean. Camilok argi ikusten du, handiak direnean, lapur talde bat zuzenduko dutela. Baina Andresek ez du lapurra izan nahi. Hori bai, beti egongo dira elkarrekin. Ez dakitena da liburutegian halabeharrez sartzeak beharbada bizitza aldatuko diela.




Tinta-bihotz.- 12 urtetik aurrera

Antzinako liburuak zaharbertzen ditu Mok, eta liburuei dien maitasuna bere alaba Meggie-ri irakatsi dio. Meggie irakurle amorratua da. Gau batean, gizon misteriotsu bat agertuko da haien etxeko leiho atzean eta, handik aurrera, abenturaz beteriko bidaiari ekingo diote aita-alabek liburu berezi baten bila. Bidaian zehar, bere bizitzako misteriorik handiena argituko du Meggiek: bere amaren desagertzea.



Nora eta laugarren Errege Magoa (5 urtetik aurrera)

Joan den urtean, Norak bost jostailu eskatu zizkien Errege Magoei, baina hiru baino ez zizkieten ekarri. Aurten, horren arrazoa galdetzeko, esna geratuko da neskabila. Baina Errege Magoak etorri eta eskatutako guztia utziko diote. Aho zabalik geratuko da, ordea, etxeko balkoitik laugarren Errege Mago bat sartzen ikustean...



Margolin (8 urtetik aurrera)

Parisko kaleetan bizi den eskale baten ahotik etorri zaigu Margolin tximeletaren istorioa. Haur batek bere etxeko lorategian harrapatuko du. Baina tximeleta hori oso ausarta da. Horregatik egingo ditu ahalegin guztiak askatasuna lortzeko eta berriro lagunekin elkartzeko.




Ezekiel (Gazte-literatura)



Ezekielek hamalau urte ditu. Etxean amarekin eta arrebarekin bizi da, emakumez inguratuta. Hamalau urteko mutil gehienek bezala, bizitza bi partetan banatuta dauka; alde batetik etxeko istiluak daude, eta bestetik kanpoko giroa: eskola, lagunak, koadrilaren lokala eta... neskak. Neskek buruhausteak ematen dizkiote, etxe barruan eta kanpoan. Ezekielen koadrilako inork ez dio oraindik musurik eman neska bati. Eta denak amorratzen daude. Izan ere, abentura handia da lehenengo musua ematea.

David Calzon
 G. mails
 Sam Knobes






BANKROK O LAPURER



Baina ez da konturatu handill politze dabilde



Polizia ezkerretan gora dator



David AMARRA

